

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

##### Gazteria

#### **Gazte Informatzaileen Sarea 2021-2022 programaren barruan diru-hornidurak esleitzeko deialdiaren ebazpena**

2021eko maiatzaren 28an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gazte Informatzaileen Sarea 2021-22 programaren barruan diru-hornidurak esleitzeko deialdiaren oinarriak. Oinarri horiek 2021eko ekainaren 11ko ALHAOn argitaratu ziren (64.zk).

Eskabideak aurkezteko epean, guztira, 20 eskabide jaso dira, eta honako ikastetxe hauek aurkeztu dituzte:

Arkaute Nekazaritza LHI, Koldo Mitxelena BHI, Sagrado Corazón-Corazonistas Ikastetxea, Lakua BHI, Francisco de Vitoria BHI, Paula Montal Ikastetxea-Escolapias, Egibide Arriaga, Mendabaldea BHI, Egibide Jesús Obrero, Olabide Ikastola, Egibide Mendizorrotza, San Prudencio Ikastetxea, Egibide Molinuevo, Miguel de Unamuno BHI, Egibide Nieves Cano, Urkide Ikastetxea, Ekialdea BHI, CFPB ADSIS Gasteiz, Zabalgana BHI eta Sansomendi IPI.

Epean aurkeztutako proiektuak berrikusi ondoren, Gazteria Zerbitzuko teknikariek jakinarazi dute proiektu guztiek betetzen dituztela deialdiko oinarrietan ezarritako baldintzak; beraz, 2021eko urriaren 4an egindako txostenean proposatu egiten da 500 euroko 20 diru-hornidura esleitzea, 20 ikastetxe horietako bakoitzari bana. Guztira, 10.000 euro dira.

2021erako indarrean dagoen aurrekontuko 2021/0116.2371.48936 partidaren bada aurrekontu-zuzkidura nahikorik gastu horri aurre egiteko.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta orobat Toki korporazioen zerbitzuen araudiaren 23.artikulua eta hurrengoak eta Gasteizko Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantza, zeinari 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran eman baitzion Gasteizko Udalbatzak hasierako onespena, eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn -5.zk.- argitaratu baitzen.

Eskumenak eskuordetzeko alkatearen 2020ko urriaren 1eko dekretuaren ildotik, eta Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantzaren 5.1artikulua eta Tokiko Gobernua eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua kontuan izanik, proposamen hau aurkezten dio Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariak Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki-proposamena

Lehena. 500 euroko 20 diru-hornidura ematea onestea, guztira 10.000 euro. Jarraian zehazten diren 20 ikastetxeei emango zaizkie:

Arkaute Nekazaritza LHI, Koldo Mitxelena BHI, Sagrado Corazón-Corazonistas Ikastetxea, Lakua BHI, Francisco de Vitoria BHI, Paula Montal Ikastetxea-Escolapias, Egibide Arriaga, Mendabaldea BHI, Egibide Jesús Obrero, Olabide Ikastola, Egibide Mendizorrotza, San Prudencio Ikastetxea, Egibide Molinuevo, Miguel de Unamuno BHI, Egibide Nieves Cano, Urkide Ikastetxea, Ekialdea BHI, CFPB ADSIS Gasteiz, Zabalgana BHI eta Sansomendi IPI.

Gazteria Zerbitzuaren 2021eko aurrekontuaren 2021/0116.2371.48936 partidaren kontura joango da gastua.

Bigarrena. Interesdunei erabakia jakinaraztea, ALHAOn argitaratuta, eta orobat adieraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte edo argitarazte egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Hirugarrena. Dagokion informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20.artikuluarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 2an

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria*  
**ESTITXU PEREDA SAGREDO**